

B

BARREN

TOKIKOM



Irailaren gordina

MARIXABEL ZABALETA

gunea



Gerturatu ahala, haur hotsak, ume-aulkien gurgilak tarraka-tarraka, ‘hala goazen, berandu iritsiko garela’ helduen ahotsak, autoaren klaxona atzetik... Aurrean eskailera dotore batzuk gorantz eta Elgoibar Ikastolaren logoa duen kristalezko ate zabala... Atea gardena izanda han ikus daiteke, bizkotxoetan “zorionak” ipintzen den krema txuri polotoarekin eginda balego bezala, “Marixabel Zabaleta gunea” idatzita, bulegoaren horma ilunean, aurrez-aurre, ongi-etorria eginez.

Ama, nor da Marixabel?, esan dit alabak. Gazteegia jakiteko! Segundu batez begiak itxi eta haurra naiz berriro. Jolastordua da, eta ikastolako bulegoan lau neskato gaude gutunak gutunazaletan sartzen, idazkaritara jolasten. Zein ondo, berriz ere Mirentxuren izebak gonbidatu gaitu bulegora eta han gaude, saltsan.


Marixabel ikastolako idazkaria izan zen urte askoan, erantzun nion. Ikastolan ikasi dugun askok ezagutu eta estimatu genuen. Marixabel 1974an hasi zen Elgoibarko Izarraren Ubitarteko lokaletan ikastolarentzat administrazio lanetan, Manolo Zabala orduan presidente zenak kontratatuta. Ondoren, eraikin berri pasatu zen, eta Agustin Gorostiza bulego-zuzendari hasi zenean taldea osatu zuten. Bikote langile nekaezinak, hainbat bizipen zail eta bereziri egin zieten aurre irakasleekin batera. Beti laguntzeko prest, Marixabelezat gau eta egun zaindu gabe utzi ezin den haurtxoa bezalakoa izan zen hazten joan zen ikastola. Tamalez gaixota-

sunak gupidarik gabe harrapatu zuen eta 2010ean betirako agurtu gintuen.

Askoren bihotzetan gelditu da, ordea. Eta ikastolako obra berriak amaitzean, bulegoari Marixabel Zabaleta gunea izena ematea erabaki dugu, bere omenez. Etxean, ikastolan, lagunartean maite dutenek badakite; bulegoko hitzek hala jakitera ematen dute: bere printzak bulegoko txokoan darrai.

Oharra: Alberto Moreno, Marixabelen alargunak, Ikastolak eta Elgoibarko herritarrek eskaini dizkioten maitasun adierazpenak eskertu nahi ditu, familiaren izenean.

EDURNE BILBAO



BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

COORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea
Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi,
Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara
Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,
Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo
Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga,
Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti
Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute,
Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop., E.
TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko!

Orain dela 50 urteko Soka Dantzaren partaide bezala, gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu:

Haritz Euskal Dantza Taldeari, bereziki gurekin harremanetan izan diren Maialen Astigarra eta Eire Vilari;

Udal Txistulari Taldeari, Jose Inazio Sarasua buru dutelarik;

Alkatea den Alfredo Etxeberriari eta korporazio osoari;

Eta baita ere herritarrei, eskaini ziguten omenaldia guztiz hunkigarria eta beroa izan zelako.

Gu oso pozik sentitu ginen; beraz, mila esker.

NAN 15.318.735-E ☺

'Txikixan haundi'

Haundi egin zenuten beste behin ere Txiki Eguna. Txarangaren kalejira amaitu zenean, Sigmako aparkalekurako bidea hartu zenuten hainbat eta hainbat herritarrek, eta zuei esker, handia izan zen Txiki Eguna Elgoibarko Izarrako kideentzat. Eskerrak eman nahi dizkizuegu bazkaltzeko gure gunea aukeratu zenuten guztioi, eta baita ere egun horretan lanera etorri zineten guztioi. Askok izan zineten era batean edo bestean bazkaria ondo irten zedin lagundu zenutenak, eta hori eskertzekoa da.

Zuek nahi baduzue, datorren urtean ere elkar ikusiko dugu Txiki Egunean, Txiki Eguna hundia delako.

Elgoibarko Izarra ☺

'Dantzaren Soka'

Arreta handiz irakurri dut joan den abuztuaren 23ko 916. **BARREN**en argitaratu zen *Dantzaren Soka* izeneko erreportajea, eta esan beharra daukat orokorrean zuen aurkezpene oso gustuko izan dudala.

Hala ere, eta nire iritzi apalean, bertan zuzenketa pare bat egin beharko liriateke:

Alde batetik "San Bartolome egunean, orkestrak jartzen zigun dantzarako erritmoa" esaten denean, argitu beharra dago ez zela "orkestra" soka dantzan erritmoa jartzen ziguena, baizik eta "Ansola Anaien txistulari banda", urtez urte San Bartolome eguneko txistu kon-

zertua eskaintzen zuena eta, Udalak eskatuta, egun horretan Soka Dantzako doinuak jartzen zituena.

Bestetik, "Carlos Arrese Elgoibarko alkate izandakoa ere..." jartzen du, eta, nik dakidala, Carlos Arrese ez da inoiz Elgoibarko alkate izan.

Argibide hauek lehenbailehen argitaratuko dituzuelakoan, ez nuke agurtu nahi elkarrizketa egunean eskaini zenidaten arreta guztia eskertu gabe.

Mila esker, eta, beste bat arte.

Luis Gurrutxaga ☺

Mila esker!

Aurtengo San Bartolome jaietan Gure Esku Dago dinamikaren baitan ateratako zapi gorriak saltzen lagundu diguzuen Elgoibarko tabernari eta Jai Batzordeari mila esker!

Eta zer esanik ez Muebles Antón dendako jabeei, zuen lokala horren era adeitsuan uzteagatik; zuei eskerrak, Ekainaren 8an egindako Giza Kateari bukaera polita eman diogu eta gogora ekarri egun hartako oroitzapen ederak. Mila esker ere Milar Bire dendakoei telebista uzteagatik eta barkatu argazki batzuen kalitate faltak telebistaren ezaugarriak gutxietsi baditu. Azkenik, eskerrak eman zapiak erosi dituzuen guztioi!

Elgoibarko Gure Esku Dago ☺



29 Gazteen Eguna







29

Gazteen
Eguna



30
Baserreitarren
Eguna







30
Baserritarren
Eguna



Arg.: Soarte



3 1

Jubilatuen eta umeen Eguna





Arg.: Elgoibar.org

Arg.: Elgoibar.org




3 1

**Jubilatuen eta
umeen
Eguna**

Soka Muturra



Soka Muturra





36ko gerran Aistian izandako guduari buruzko erakusketa zabaldu du Udalak, memoria egiteko programaren barruan

Irailaren 21a arte egongo da zabalik, Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan

Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuaren barruan, hainbat ekintza antolatu ditu Elgoibarko Udalak irailerako, Elgoibarko lurretan borrokan aritu ziren gudarien jatorrizko herrietako udalen eta zenbait kultur erakunderekin elkarlanean —Aranzadi elkarte, Sabino Arana Fundazioa eta Sancho de Beurko elkarte— eta Eusko Jaurilaritzaren eta Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundien laguntzarekin. Aistiako bataila edo gudu gertaturikoak gogora ekartzeko osatu duten erakusketaren bueltan antolatu dute progama. Erakusketa atzo inauguratu zuten eta hilaren 21a arte, hain justu ere tropa matxinatuak Elgoibarren sartu ziren egunera arte, egongo da ikusteko aukera, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Aste barruan 18:00etatik 21:00etara egongo da zabalik erakusketa gela, eta asteburuan 12:00etatik 14:00etara goizez, eta 18:00etatik 21:00etara arratsaldez.

Goazen gudari danok... askatasun-bidean Zirardamendi, Aistia (San Migel), Elgoibar, 1936 En defensa de la libertad jarri diete izena erakusketari, eta 1936ko irailean Aistian hasi eta Eibarko mendietan barrera Elgetaraino Fronte Nazionalak aurrera egitea oztopatu zuten gudariei egin nahi diete gorazarre, Euskal Herriaren eskubide



legitimoak defendatzeko Zirardamendin hil ziren gazteei bereziki. Zehazki, 36ko irailaren 26an gertatutakoaren berri ematera dator erakusketa.

Liburua eta dokumentala

Irailaren 15ean, erakusketaren izen bereko liburua aurkeztuko dute Kultur Etxean (19:00). Patxi Juaristi, Josu Txueka eta Francisco Etxeberria EHUko irakasleek eta Sabino Arana Fundazioaren kolaboratzaile diren Aitor Estebanek eta Iñaki Goioanak idatzi dute. Irailaren 18an, berriz,

19:00etan, *Goazen gudari danok...* dokumentala aurkeztuko dute Herriko Antzokian. Azpeiti eta Elgoibarko lurretan grabatu dituzte irudiak. Eta azkenik, irailaren 21ean, 36ko gerrako gudariei omenaldia egingo diete Zirardamendin, hildako gudarien hobien ondoan. 10:00etan hasiko dute ekitaldia, lore eskaintzarekin, eta 11:30ean Ertzaintzaren musika bandak joko du. 12:00etan, Gernikako Arbolaren kimu bat landatuko dute. Ekitaldian Iñigo Urkullu Eusko Jaurilaritzako lehendakariak ere parte hartuko du.

laz baino erabiltzaile gutxiago izan dituzte igerilekuek, eguraldiagatik



Eguraldiari dagokionean ezin esan uda ona izan dugunik, eta horren eragina Mintxetako igerilekuetan ere igarri da. Azkeneko bi urteekin alderatuz ge-

ro, jende gutxi ibili da aurtan. 50.000 erabiltzaile baino gehiago izan dira azkeneko bi urteetan, eta aurtan, nekez iritsiko da 40.000ko kopurura. Marti-

tzeneko datuak dira Udal Kirol Patronatuak jakinarazi dituenak eta ordura arte 34.522 ziren igerilekuetara joandakoak. Erabiltzaile kopuruari dagokionean abuztua izan da hilabeterik txarrena, baina kontuan izan behar da 31 egunetik 14tan euria egin duela Elgoibarran. Abuztuan 7.295 erabiltzaile zenbatu zituzten, uztailean 16.151 eta ekainean 9.510. Domekan itxiko dituzte igerilekuak.

Izena **Arnaldo Otegi**



Bateragune auzian atxilotutakoak libre uztea exijitzeko manifestazioa antolatu du Arnaldo Otegiren aldeko herri ekimenak urriaren 11rako. Bost dira atxilotuak: Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Sonia Jacinto, Miren Zabaleta eta Arkaitz Rodriguez. Orain dela bost urte atxilotu zituzten, eta haiek aske uzteko eta politika egiteko eskubidea eskatuko dituzte manifestazioan. Kalegoen plazatik abiatuko da manifestazioa, 17:00etan.

Argazkia **Arribiribiletako menhirra**

Karakate eta Irukurutzeta arteko Dolmenen Ibilbidean dagoen Arribiribiletako Menhirra zutik jarri dute berriro, jatorrizko posizioan, alegia. Dolmenen Ibilbidea egitasmoaren barruan burutu dituzten ikerketen arabera, Arribiribiletako monumentu megalitikoa menhir bat da, eta ez dolmen bat, orain arte uste zen bezala. Historiaurreko jatorria duen menhir hau zutik zegoen duela lau mila urte inguru eta ondoren lurrera erori zen. Monumentu hau Irukurutzeta eta Kurutzebakar gailurren artean dago eta J.M. Barandiaranek aurkitu zuen 1921. urtean. 3,60 metro luze, 1,70 metro zabal eta 0,40 metro lodi den balsaltozko harri-bloke handi bat da.

Elgoibar, Soraluze eta Bergarako Udalen ekimenez burutu da lan hori, Aranzadi zientzia elkarteko kideen laguntzarekin. Ekimen honen barruan, *Udazkena Dolmenen Ibilbidean* programa antolatu dute, eta lehenengo ekintza irailaren 14an egingo dute. 11:30ean batuko dira Irukurutzetako tontorraren inguruan, eta erromeria egingo dute. Elgoibar, Soraluze eta Bergarako mendi taldeek eta beste hainbat elkartek hartuko dute parte, eta besteak beste, dantzari eta txistulariak arituko dira, haurrentzako jolasak egingo dituzte eta hamaiketako eskainiko dute. Horrez gain, Arribiribiletako menhirraren inguruan egin diren lanen berri emango dute Aranzadiko kideek.



Miski elkarteak egin du udako zozketa

Peruko Cuzco herriko bizilagunei laguntzeko errifak saltzen jardun du Miski elkarteak, eta dagoeneko jakinarazi ditu Gemma Agirregomezkortak zenbaki saridunak. Irabazleek Elgoibarko jatetxe eta tabernetan bi lagunentzako menua jasoko dute: 1.475 (Belaustegi), 1.874 (El Gautxo), 3.201 (Gabi), 0875 (Gorbea), 1.776 (Gran Siglo), 2.553 (Ibái Ondo), 1.664 (Karakate), 1.347 (King Kong), 3.255 (Lerun), 0474 (San Pedro), 2.354 (Sigma), 0735 (Txarriduna), 3.424 (Usatorre).

Gurasoentzako euskara ikastaroak

Udal Euskaltegiak eta AEK euskaltegiak, gurasoentzako hainbat euskara ikastaro antolatu dituzte, eta Udalak diru-laguntza bereziak emango dizkie parte hartu nahi dutenei. 0 eta 12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoek matrikula erdia baino ez dute ordainduko, eta horrez gain, gurasoek Udalaren beka lortzeko aukera izango dute. Berri esker, izena ematerako orduan ordaindutako kopuruaren erdia jasoko dute. Euskara ikasteko aukera ezberdinak eskainiko dira: euskara ikasten hasteko, hobeto edo errazago berba egiteko, edota hobeto idazten eta irakurtzen ikasteko. Informazio gehiago nahi duenak Udal Euskaltegira (943 742731) edo AEKra (607601423) jo dezake.

103 ikastaro eskainiko ditu IMHk abendura bitartean

Enpresen eta langileen beharrei erantzuteko 103 ikastaro eskainiko ditu IMHk abendura bitartean. Horietatik 15 ikastaro berriak dira, gainera: fabrikazioaren arloan bederatziz, kalitate arloan lau eta giza baliabideen arloan bi. Mantenu alorrean, bestalde, bi ikastaro euskaraz eskainiko dituzte. Horrez gain, langabeentzako ikastaroak ere prestatu dituzte. Informazio gehiagorako: 943 744 132.

Desafioa izango da San Antolin jaietako egitarauan aurtengo berrikuntza nagusia

San Antolin jaiak ospatuko dituzte asteburuan Arriaga auzoan

Martitzenean izan zen San Antolin Eguna, eta horren harira, jaiak ospatuko dituzte asteburuan Arriaga auzoan. Aurtengo egitarauaren barruan, bada berrikuntza bat: Desafioa. Kirol desafio berezia prestatu dute bihar-ko Kaxeta elkarteko kideek. Bost lagunez osatutako taldeak arituko dira lehian eta taldeak mistoak izan behar dute, hau da, emakumez eta gizonez osatutakoak. 19:00etan hasiko da proba, eta partaideek bederatzi probatan hartu beharko dute parte: Lokotx biltzea, txingak eramatea (urez betetako ontziak izango dira eta galdutako ura neurtuko dute epaileek), arrautza jaurtiketa, eskuak atzean lotuta dituztela, ura irinetan dagoen balde bate-tik sagarrak hartzea, dantza (fandangoa eta arin arina), poniaren gainean itzulia, bizikleta estatikoan bi minutuko saioa, bi bertso osatzea momentuan emango zaien gai baten inguruan, eta azkenik,



talde bakoitzeko hiru partaidek hankak elkarri lotuta dituztela plazari bi itzuli eman beharko dizkiote.

Sariak

Talde irabazleak 300 euroko saria jasoko du, 200 euro bigarren sailkatzen den

taldeak eta 100 euro hirugarren geratzen direnek. Interesatuak Usatorre tabernan eman dezakete izena, edo kaxetaelkar-tea@hotmail.com helbidera idatzita.

Kirol desafioaz gain, beste hainbat ekintza izango dira asteburuan. Agendan aurkituko duzue egitarau osoa.

Zabalik dago emakumeak industrian egindako lana bistaratzeko erakusketa, Kultur Etxean



Sanbartolome jaien aurretikoan zabaldu zuten eta irailaren 20ra arte egongo da zabalik Elgoibarko emakumeak eta industria: *bizitza bat, hamaika lan* izenburuko erakusketa, emakumeek urteetan egindako lan ezkutua bistaratzeko eta balioesteko Ondartes enpresak Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailaren enkarguz egindako lana. Kultur Etxeko sotoan dago ikusgai erakusketa.

Elgoibarko Udal Artxiboko dokumentuetan oinarritu dira hein handi batean erakusketa osatzeko, baina herriko industria aztertu dutenen laguntza eta bereziki industrian jardun duten emakumeen ekarpenak ezinbestekoak izan dituzte erakusketa osatzeko. XVI. mendean hasi eta gaur arteko historia aztertu dute, zazpi etapatan banatuta. Eta ikusi dute oztopo eta lege murritzaile guztien gainetik, emakumeak lan handia egin duela industria gaur dena izateko. Erakusketan garrantzia berezia eskaini diote Estarta y Ecenarro enpresari. Estarta y Ecenarron bulegoko lanetan eta komunikazioari eta itzulpegintzari lotutako lanetan ageri da bereziki emakumea.

Informazio idatzia, grafikoa eta ikusentzunezko labur bat batzen ditu erakusketak, eta gogoetarako bidea eman. Zergatik izan da urteetan emakumea horren ikusezin industria alorrean? Zergatik izan da eta oraindik ere beharrezko foku berezia jartzea emakumeen lanaz jarduteko?

Irailaren 20rako antolatu du Gau Krosa Mintxeta atletismo taldeak

Mugertza krosa finantzatzeko sortu zuten Gaur Krosa orain dela bost urte

Gau Krosaren bosgarren edizioa antolatu du Mintxeta atletismo taldeak irailaren 20rako. Mugertza Nazioarteko Krosa finantzatzen laguntzeko antolatu zuten lasterketa hori estreinako orain dela bost urte, eta aurten ere laguntzeko laguntzeko eskatu nahi diete herritarrei. 20:00etan hasiko da proba Kalegoen plazan, eta 7,7 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute korrikalariak. Proba amaitzean, Olaizaga kiroldegian dutxatzeko aukera egongo da. Sariak egongo dira irabazleentzat, eta horrez gain, krosetako partaideen artean opariak zozketatuko dituzte.

Izenematea www.kirolprobak.com webgunean egin daiteke. Txip horia dutenek 8 euro ordaindu beharko dituzte, txipa alokatu nahi dutenek 10 euro, eta txipa erosi nahi dutenek berriz, 27 euro. Informazio gehiagorako www.kirolprobak.com webgunean sartu daiteke.



Korrikedada egitasmoa irailaren 9an hasiko da

Emakumeak kirola egitera animatzeko egitasmoa da Korrikedada. Udaleko Berdintasun Sailak eta Kirol Patronatuak jarri zuten martxan egitasmoa ekainean, eta izandako arrakasta ikusita, irailaren 9an jarriko dute martxan berriro. Kirol monitore baten gidatuta, korrika saioak egingo dituzte martitzen eta eguenean (19:00). 16 urtetik gorako emakumeek hartu dezakete parte. Interesatuak datorren martitzenean Mintxetan agertu beharko dute, kirol arropak eta zapatilak jantzita. Egitasmo hau doakoa da.

Gimnasia hipopresibo ikastaroa eskainiko du Kirol Patronatuak irailaren 15etik aurrera

Irailaren 15etik aurrera gimnasia hipopresibo ikastaroa eskainiko du Kirol Patronatuak, Mintxetan. Asteartetan 18:00etan, ostegunetan 13:15ean edo ostiralean 15:00etan izango dira ikastaroak. Ikastaro honetan parte hartu nahi dutenek Mintxetako edo Olaizaga kiroldegiko harreran eman dezakete izena. Bazkideek 23,70 euro ordaindu beharko dituzte hilean, eta bazkide ez direnak 35 euro.

Umeentzako futbito partidak antolatu ditu CD Elgoibarrek irailaren 13rako

2003, 2004, 2005 eta 2006an jaiotako neska-mutilentzako futbito partidak antolatu ditu CD Elgoibarrek irailaren 13rako. 2003an eta 2004an jaiotakoek jokatu dute alde batetik, eta 2005ean eta 2006an jaiotakoek, bestetik. Taldeak klubak berak osatuko ditu, izena ematen duten neska-mutilen artean zozketa eginaz. Izena emateko cde@cdeigoibar.com helbidera idatzi

edo CD Elgoibarrek Mintxetan duen bulegora jo daiteke. Taldeak egin ahal izateko, atezain nortzuk jokatu dute zehazteko eskatu dute antolatzaileek. Partidak 9:00etan hasiko dira. Txapelketari eta ordutegiari buruzko informazio gehiago www.cdeigoibar.com webgunean aurkituko duzue.

Astehenerako hasiko da atletismo denboraldia

Datorren astehenerako antolatu du Mintxeta atletismo taldeak denboraldiko lehen entrenamendua. 19:00etan hasiko da entrenamendua, eta interesatuak han bertan agertu beharko dute, kirola egiteko arropak jantzita. 8 urtetik gorako neska-mutilek hartu dezakete parte. Aurrera begira, entrenamenduak astehenera, eguazten eta barixakuetan izango dira, 19:00etan.

Saskibaloian jokatzeko jendea behar du Viento Sur taldeak

Viento Sur saskibaloia taldeak jendea behar du taldea osatzeko. Saskibaloian jokatzeko gogoia duen jendea behar dute. Interesatuak Viento Sur tabernara jo dezakete informazio gehiago eskuratzeko.

Sanloren zozketa

Sanbartolomeetako eskubaloia partidako atsedenean Canton ardo onduaren zozketa egin zuen Sanlok, eta 4.073 izan da zenbaki sariduna. (Ordezkoak 5.984 eta 1.769). Irabazleak bi lagunentzako asteburuko egonaldia irabaziko du lau izarretako Hotel Villa Laguardian. (Pentsio erdian, SPA, ardo kata ikastaroa eta ardoaren zentru tematikora irteera barne).

ETXEBIZITZAK

- Etxea salgai Eibarko erdialdean. Guztiz jantzi-eta bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalde, trastelekua, igogailua eta 5 horma-armairu ditu. Argitsua. 132m2 erabilgarri.
☎ 626 203 838 / 699 495 249
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.
☎ 608 523 426

LAN ESKAINTZAK

- Emakumea eskaintzen da lanerako. Adinekoak zaintzen esperientzia handia. Orduka edo interna.
☎ 642 609 678
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditu.
☎ 646 931 162

- Emakumea lanerako prest. Adinekoak zaintzen, garbiketak egiten edo tabernan egingo nuke lan.
☎ 638 338 816
- Emakumea eskaintzen da gauzez adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. Arduratsua.
☎ 682 255 834
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, edo beste edozein lanetarako.
☎ 608 523 426
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko.
☎ 606 354 982

PARTIKULARRAK

- Ingeleseko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak.
☎ 680 319 002
- Neska euskaldunak LHko eta DBHko hizkuntzetako klase partikularrak ematen ditu. Atzerriko hizkuntzan diplomatua eta EGA tituluduna. Ingurumena edota matematika ere emango nituzke.
☎ 659 024 427

GARAJEAK

- Garaje marraduna alokatzen dut Santa Ana kalean.
☎ 660 841 767

OSPAKIZUNAK

- 69an jaiotako elgoibartarrek bazkaria egingo dute irailaren 27an, Sigma jatetxean. Interesatuak 55 euro ordaindu behar dituzte, kontu korrante honetan: 3035 0007 22 0070065651
- 1957an jaiotako elgoibartarrek bazkaria egingo dute irailaren 20an, Sigma jatetxean. 13:00etan batuko dira bolatokian, eta bazkaria 14:00etan izango da. 52 euro sartu behar dira Kutxako kontu korrante honetan: 2095 5036 55 1074745950. Azken eguna: irailak 17.
☎ 619 127 474 (Maria Jesus Galarraga).

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Klase partikularrak: **10€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Klase partikularrak: **8€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Gaur egun 120 metro koadroko azalera duen etxea erosi nahiko nuke, baina eskrituran 85 metro koadro dituela jartzen du. Itxura denez, duela denbora bat etxea handitu zuten, baina aldaketa hori ez zuten eskrituran jaso. Hori traba izan daiteke hipoteka mailegua eskatzeko edo eskritura firmatzeko garaian?

Bi gauza gerta daitezke: 1. Eskrituran orubearen metroak ondo jasota egotea, baina etxebizitzaren metro batzuk falta izatea. Falta diren metro horiek jasotzeko, obra berriaren deklarazio-eskritura egin behar da, eta horretarako obraren proiektua eta arkitekto batek sinatutako ziurtagiria edo Udalak emandako obra horren antzinatasun eta hirigintza legez-kotasun ziurtagiria behar dira. 2. Eskrituran orubearen edo etxebizitza-erakuntzaren metro guztiak jasota ez egotea. Kasu horretan, falta den orube zatia eskrituratu behar da eta obra berriaren deklarazio-eskritura egin falta diren eraikuntzaren metroak jasotzeko. Etxebizitza horren gaurko jabeak, saltzaileak, ordaindu behar du metrajea zuzentzeko egin beharrekoak, bi aldeek beste zerbait adostu ezean behintzat, eta erosleak kontuan izan behar du horrek, etxebizitzak metro gehiago izateak, eragina izango duela zergetan, notaritza eta etxea erregistratzeko gastuetan.

GOMENDIOA: Notarioak jakinaraziko dizu zein den gauzak ondo egiteko modurik egokiena. Normalena da mailegua ematen dizun finantza erakundeak berak eskatzea etxebizitza behar bezala eskrituratua egotea.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






• Zorionak, **Naiara**, abuztuaren 17an 4 urte bete zenituelako. Marrubi eta txokolatezko muxuak Elgoibartik eta Andoaindik.



• Zorionak **gure printzipeari** abuztuaren 7an bi urtetxo bete zituelako. Etxekoen partez eta bereziki Lara, Sabina eta Teoren partez.



• Zein guapa eta zein haundi, **Iraia!** Konturatu orduko bete dozu urtetxua eta laster zara gure atzetik korrika! Muxu, lagunen partez.



• Zorionak, **Enaitz**, gaur 4 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo pasau eta gorde goxoki batzuk guretzat ere. Muxu, lagunen partez.



• Zorionak, **Adrian**, abuztuaren urtetxua bete zendulako. Laster zara berriro gurekin parkian! Muxu bat, txapeldun!. Zure lagunek.



• Zorionak, **Ali eta Maitel** Abuztuaren 14an zuen ezkontzaren 50. urteurrena ospatu genuen. Segi elkarrekin goxo-goxo urte askoan. Etxekoek.



• Zorionak, **Mikel**, hilaren 8an 6 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Saretxol** Azkenean heldu da eguna! 5 urte! Muxu asko denon partez, prexioxa.



• Zorionak, ama-ama **Sabina!** 90 urte egin dittuzu abuztuaren eta ospatu biharra daukagu. Hor izango gaittuzu domekan zure onduan. Etxekuak.




• Zorionak **etxeko printzesari!** Dagoeneko urte bat! Muxu handi bat etxeko denen partez, batez ere neba Oinaizen partez.



• Zorionak, **June**, uztailaren 21ean 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoen eta bereziki Nagore eta Unairen partez.



• Zorionak, **Mixel eta Maite**, Lurraldebuseko lagunak partez. Oso ondo pasatu genuen larunbatean.



• Zorionak, **bikote!** Iritsi da zuen eguna. Izan zaitzetezela orain arte bezain zoriontsu. Muxu bat. Koadrilakoak.

K.E.Y. hizkuntza akademia Trenbide kalea, 19 behea

MATRIKULA EPEA ZABALIK

Informazioa telefono hauetan: **943 743 044 - 653 825 606** eta akademian



2014-2015 ikasturtea

Ingeles, frantses eta aleman eskolak

- ◆ Haur, Gazte eta Helduentzako klaseak.
- ◆ Errefortzu klaseak: Lehen eta Bigarren Hezkuntza eta Batxilergokoak.
- ◆ Cambridge azterketetarako prestakuntza: Young learners, KET, PET, FIRST, ADVANCED.
- ◆ Ahozkoa lantzeko klaseak.

Irailaren 15ean ikasturte hasiera

5 barixakua

Erakusketa

18:00 'Goazen gudari danok... askatasun bidean'
Irailaren 21era arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

8 astelehena

Ikasturtea

8:40 Oin Alai

Ikasturte hasiera, Oin Alai egitasmoarekin. Kalegoen plaza.

Ludoteka

16:30 Ludotekaren irekiera

Ikasturtea hasiko dute ludotekan.

10 eguztana

Gaztelekua

17:00 Gaztelekuaren irekiera

Ikasturtea hasiko dute gaztelekuan.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 -24:00	24:00 - 09:00
5 Barrenetxea	Astelenehena igandera	Azkue (Eibar)
6 Ibañez Goizez: Garita.		Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)
7 Ibañez	Yudego	
8 Yudego		
9 Etxeberria		
10 Fernandez		
11 Garitaonandia		
12 Zabaleta		

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

SAN ANTOLIN JAIK 2014

IRAILAK 5, BARIXAKUA

19:00 Jaien hasiera. Txaplogua botatzea

- IX. Txapel jaurtiketa lehiaketa
- VII. Oliba jaurtiketa lehiaketa

20:00 Triki-bertsu kalejira. Trikitilariak: Kupela

21:00 Aurrekua

Jarraian, Bertso afaria. (Afarirako txartelak Usatorre tabernan salgai, 25 euroan).

- Trikitilariak: Kupela
- Bertsolariak: Unai Iturriaga eta Ione Uria

Goizaldera arte erromeria (Txokolatada egongo da)



IRAILAK 6, ZAPATUA

17:00 San Antolin auzoko V. Mus Txapelketa (txapela eta diru saria)

18:00 V. Patata tortila lehiaketa, tiragoma lehiaketa eta umeentzako jolasak

19:00 Desafioa (Talde desberdinen arteko herri kirolak eta jolasak (parte hartzaile guztientzat izango dira sariak).

21:00 Afaria. Marmitakoa, eta gazta eta menbriloa. Prezioa: 15 euro (edaria eta kafea barne)

Jarraian, gaztaren pisua igartzea

Ondoren, erromeria. Laja eta Mikel trikitilariekin. Erromerian, dantza txapelketa

01:00 Auzoko errifaren zozketa

- 1. saria: bi lagunentzako Kanariar uharteetara bidaia
- 2. saria: janariz eta edariz betetako karretila

Goizaldean, sorpresa.

02:00 txokolatada.

Erromeriak goizaldera arte jarraituko du!



Eskertzak eta urteurrenak



ESKERTZA

BONI IPIÑA USABEL

2014ko uztailaren 23an hil zen, 85 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

PEDRO M^a SAN MARTIN JUARISTI

2014ko abuztuaren 5ean hil zen, 62 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

JESUSA SORALUZE LEYARISTI

2013ko abuztuaren 11n hil zen, 84 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen du hileta elizkizunetara agertu izana.



IV. URTEURRENA

JOSE LUIS HUIDOBRO TORINOS

2010eko irailaren 4an hil zen, 58 urte zituela.
“Beti izango zaitugu gogoan”
Emaztea, seme-alabak eta familiako gainerakoak



ERAKUSKETA
KULTUR ETXEA.
ELGOIBAR

INAUGURAZIOA
IRAILAK 4. 19:00

IRAILAK 5-21 SEP.
ASTELEHENA-OSTIRALA:
18:00-21:00
LARUNBATA ETA IGANDEA:
12:00-14:00 18:00-21:00

LIBURUAREN
AURKEZPENA
KULTUR ETXEA.
ELGOIBAR
IRAILAK 15 SEP.
19:00

DOKUMENTALA
HERRIKO ANTZOKIA.
ELGOIBAR
IRAILAK 18 SEP.
19:00



GOAZEN GUDARI DANOK

ASKATASUN-BIDEAN EN DEFENSA DE LA LIBERTAD

ZIRARDAMENDI-AUSUA (SAN NIGEL)-ELGOIBAR, 1936

